ZUIN
INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2020
06/2
INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2020



# Udal Euskaltegia: ikastaro trinkoak

**2020ko ekainaren 2a, asteartea.** COVID-19ak sortutako alarma egoera dela eta Laudioko Udal Euskaltegian lanean ari dira uztailean eta irailean A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetako ikastaroak eskaini ahal izateko. Ikastaroak egunerokoak izango dira, astelehenetik ostiralerakoak, 5 ordukoak eta goizeko ordutegian, 08:30etik 14:00etara.

Matrikula epea zabalik dago ikastaroetan izena emateko. Gogoan izan iraileko matrikula ekainean egin behar dela.
Euskaltegian hartu beharreko prebentzio-neurri guztiak hartuko dira COVID-19aren transmisioa ekiditeko: gorde beharreko distantzia soziala, maskarak, garbitzeko eta desinfektatzeko materiala eta produktuak, etab.
Euskaltegitik azpimarratu nahi dute "egoera berrira moldatzeak egokitzapenen bat ekarri ahal digu. Aurrerago, zehaztapen gehiago helaraziko dizkizuegu. Erabakiak, betiere, ikasleen ongizatea lehenetsiz hartuko dira"
COVID-19aren ondorioz, denbora gehiena telematikoki ari dira lanean; beraz, une honetan, e-mail bidezko komunikazioa lehenesten da (euskaltegia@laudio.eus). Euskaltegian telefonoa goizeko ordutegian hartuko da eta 12etatik 14:00etara bulegoa zabalik egongo da.

# Euskaltegi Municipal: cursos intensivos

**Martes, 2 de junio de 2020.** Dada la situación de alarma creada por la COVID-19, en el Euskaltegi Municipal de Laudio/Llodio están tramitando la documentación necesaria para poder impartir los cursos de los niveles A1, A2, B1, B2 y C1 durante los meses de julio y septiembre de 2020. Los cursos serán diarios, de lunes a viernes, de 5 horas y en horario de mañana, de 8:30 a 14:00 horas.

El plazo de matrícula para inscribirse en los cursos está abierto. Asimismo, la matrícula para septiembre se realiza en junio.
Con el fin de evitar la transmisión de la COVID-19, en el euskaltegi se tomarán todas las medidas preventivas necesarias: distancia social a guardar, máscaras, material y productos de limpieza y desinfección, etc.
Desde el euskaltegi señalan que "adecuarnos a la nueva situación puede conllevar alguna adaptación. Os mantendremos informados. Las decisiones se tomarán priorizando, en todo caso, el bienestar del alumnado".
Debido a la situación, la mayor parte del tiempo están trabajando telemáticamente; por lo que se prioriza la comunicación vía e-mail (euskaltegia@laudio.eus). En el euskaltegi se atenderá el teléfono en horario de mañana y la oficina estará abierta de 12 a 14 horas.











# Laudioko sanrokeak: 2020 kartelen lehiaketa

**2020ko ekainaren 2a, asteartea.** Jaietako egunik berezienetan, bizi dugun egoeraren araberako formatu txikiko ekitaldiak egingo dira, agintari eskudunek ezarritako osasun- eta segurtasun-mugak eta -argibideak une oro errespetatzea ahalbidetuko dutenak. Hori dela eta, Udalak, aurten ere, kartel lehiaketa egingo du, Laudioko jaietako sugarra bizirik mantentzeko asmoz.

**Parte hartzeko baldintzak**

Ezinbestekoa izango da Laudion erroldatuta egotea; egile bakoitzeko nahi adina kartel aurkeztu ahal izango dira, hainbat lelorekin, baldin eta originalak eta argitaratu gabeak badira eta aurretik saritu ez badira, eta teknika librekoak badira. Hala ere, ez dira onartuko marrazki eta/edo mezu sexistak, xenofoboak, arrazistak eta abar. Haurren kategorian, 6 eta 14 urte bitarteko edozein haurrek parte hartu ahal izango du lehiaketan, baita Laudioko ikastetxeren batean matrikulatuta dagoenak ere.

Lanak kartelaren irudia duen artxibo gisa aurkeztuko dira, JPG formatuan (Neurriak: 820 x 1171 pixel. Ebazpena: 72 pixel/hazbete. Gehienezko pisua: 2 MB). Ezin izango dira sinatuta egon, ez eta aurkezten duen pertsonaren nortasuna ezagutzeko elementurik ere, eta irudiak 1000 mm x 700 mm formatuan erakutsi beharko du kartela (bertikalean).

Kartelean nahitaez sartu behar diren testuak honako hauek dira: SANROKEAK 2020 – Laudio/Llodio eta udalerriko armarri ofiziala, Udaleko Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuan emango den ereduaren arabera, zeina Udalaren webgunean ere eskuragarri baitago.

**Sariak eta epaimahaia**

Kategoria orokorrean edo helduarokoan sari bakarra emango da, 1.000 euroko bonu bat, herriko dendetan 2020ko abenduaren 31ra arte erabiltzekoa. Infantil kategoriari dagokionez, sari bakarra emango da: 200 euroko balioa duen material didaktiko sorta, herriko dendetan erositakoa.

Irabazleen nortasuna ZUINen, udalaren webgunean eta ohiko udal-komunikabideetan argitaratuko da, eta Udaleko Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuak hitzordua emango dio saria jasotzera joateko.

Hautaketa-sistemak bi fase izango ditu; lehenengo fasean Epaimahai Teknikoa izango da protagonista, eta bigarren fasera igaroko diren obrak hautatuko ditu. "Bozketen" bigarren fasean, 100 puntu emango zaizkie gehienez: 50 puntu Epaimahai Teknikoaren bozketarako eta 50 puntu herri-bozketarako. Udal-webgunearen bidez baino ezin izango da sartu bozketan.

Lehiaketan parte hartzeko epea ekainaren 21era artekoa izango da, egun hori barne, eta lanak www.laudio.eus udal webguneko formularioaren bidez aurkeztuko dira.

# Los sanroques de Llodio: concurso carteles 2020

**Martes, 2 de junio de 2020.** En los días más especiales de las fiestas se celebrarán actos de pequeño formato acordes a la situación que vivimos que permitan respetar en todo momento las restricciones e indicaciones de salud y seguridad fijadas por las autoridades competentes. Con este pretexto, el Ayuntamiento ha lanzado el concurso de carteles con el objetivo de mantener viva la llama de las fiestas.

**Requisitos para participar**

Será indispensable estar empadronada/o en Laudio; se podrán presentar tantos carteles como se deseen por autor/a bajo lemas diferentes, siempre que sean originales e inéditos y no hayan sido premiados con anterioridad, y de técnica libre. No se admitirán dibujos y/o mensajes sexistas, xenófobos, racistas, etc. "En el caso de la categoría infantil, podrá concurrir a este concurso cualquier niña/o de edad comprendida entre los 6 y 14 años y también que esté matriculado/a en algún centro escolar de Laudio.

Los trabajos se presentarán como archivo con la imagen del cartel, en formato JPG (Medidas: 820 x 1171 pixeles. Resolución: 72 pixeles/ pulgada. Peso máximo: 2 MB). No podrán estar firmados ni incluir elementos que permitan conocer la identidad de la persona y la imagen debe mostrar el cartel en formato 1000 mm x 700 mm (en vertical).

Los textos que deberán incluirse obligatoriamente en el cartel son: SANROKEAK 2020 – LAUDIO/LLODIO y el escudo oficial del municipio, según el modelo facilitado por el Servicio de Cultura, Deporte y Fiestas, disponible también en la web municipal.

**Premios y jurado**

En la categoría general o de adulto se dará un único premio consistente en un bono valorado en 1.000€, a usar en comercios de la localidad hasta el 31 de diciembre de 2020. En la categoría infantil, se dará un único premio consistente en un lote de material didáctico valorado en 200€, adquirido en comercios de la localidad.

La identidad de la persona ganadora será publicada en el ZUIN, en la web municipal y en los medios de comunicación municipales habituales y se le citará desde el Servicio de Cultura, Deporte y Fiestas del Ayuntamiento para ir a recoger el premio.

El sistema de elección constará de una primera fase protagonizada por el Jurado Técnico quien seleccionará las obras que pasan a la siguiente fase. Será la fase de "votaciones", a las que asignarán un total máximo de 100 puntos: 50 puntos para la votación del Jurado Técnico y 50 puntos para la votación popular, a la que se podrá acceder únicamente a través de la página web municipal.

El plazo para participar será hasta el 21 de junio, incluido, y los trabajos se presentarán a través del formulario habilitado en la página web municipal www.laudio.eus.

## Estolderia eta hondakinen bilketa eta ezabatze zerbitzuengatiko tasen ordainketa

Administrazio eta zerga-epeen etendura amaitu ondoren, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2018ko ekitaldiari dagokion estolderia, bilketa eta deuseztapen zerbitzuagatiko tasa ordaindu ez duten zergadunek 2020/06/30era arte ordaindu ahal izango dute.

Horretarako, beharrezkoa izango da Udalaren erakunde laguntzaileetara joatea, Kutxabank, Laboral Kutxa edota Caja Rural de Navarra, helbidean jaso zuten ordainketa-gutunarekin.

Arrazoi teknikoak direla-eta, ordainagiriak ezin izango dira Laudioko Udalaren webguneko "nire ordainketa" ordainketa-pasabidearen bidez ordaindu.

## Pago de las tasas por el servicio de alcantarillado y recogida y eliminación de residuos

Una vez finalizada la suspensión de los plazos administrativos y tributarios con efectos 1 de junio de 2020, las/os contribuyentes que no hayan pagado la tasa por prestación del servicio de alcantarillado, recogida y eliminación de basuras correspondiente al ejercicio 2018, podrán hacerlo hasta el 30/06/2020.

Deben acudir con la carta de pago, que recibieron en su domicilio, a las entidades colaboradoras con el Ayuntamiento Kutxabank, Laboral Kutxa y/o Caja Rural de Navarra.

Por razones técnicas, los recibos no podrán hacerse efectivos a través de la pasarela de pagos "Mi pago" de la página web del Ayuntamiento de Llodio

## ZERGADUNAREN 2020KO EGUTEGIA
## CALENDARIO DEL CONTRIBUYENTE DEL AÑO 2020

| KONTZEPTUA ETA DESKRIBAPENA<br>CONCEPTO Y DESCRIPCIÓN | ZERGALDIA / PERIODO IMPOSITIVO<br>NOIZTIK<br>DESDE | NOIZ ARTE<br>HASTA | ORDAINKETA MOTA / TIPO DE PAGO<br>HELBIDERATU GABEKO ORDAINKETA<br>PAGO NO DOMICILIADO | ORDAINKETA HELBIDERATUA<br>PAGO DOMICILIADO |
|---|---|---|---|---|
| 2018ko zabor eta estolderien tasaren ordainagiriak ordaintzea.<br>Pago de recibos pendientes tasa de Basuras y alcantarillados 2018. | 01/06/2020 | 30/06/2020 | POSTAZ JASOTAKO ORDAINKETA-GUTUNA<br>CARTA PAGO RECIBIDA POR CORREO | ORDAINDU ZEN<br>SE COBRÓ<br>06-03 |
| 2. ordainketa, zatiketa-epea (O.H.Z. 2020).<br>Pago 2º plazo fraccionamiento I.B.I. 2020. | HELBIDERATUTA BAKARRIK<br>SOLO DOMICILIADO | | | 08/06/2020 |
| Uraren zerbitzuaren ordainketa, 2020ko 1. hiruhilekoa .<br>Pago 1º trimestre 2020 servicio de aguas. | 08/06/2020 | 10/08/2020 | POSTAZ JASOTAKO ORDAINKETA-GUTUNA<br>CARTA PAGO RECIBIDA POR CORREO | 15/06/2020 |
| Trakzio mekanikoko ibilgailuen eta hilerrien zerga 2020.<br>Impuesto de vehículos de tracción mecánica y cementerios 2020. | 24/06/2020 | 24/08/2020 | POSTAZ JASOTAKO ORDAINKETA-GUTUNA<br>CARTA PAGO RECIBIDA POR CORREO | 24/07/2020 |
| O.H.Z. 2020 (Landa-lurzorua eta hiri-lurzorua).<br>I.B.I. 2020 (Rustica y urbana) . | 16/10/2020 | 16/12/2020 | POSTAZ JASOTAKO ORDAINKETA-GUTUNA<br>CARTA PAGO RECIBIDA POR CORREO | 16/11/2020 |
| J.E.Z. 2020<br>I.A.E. 2020 | 16/10/2020 | 16/12/2020 | POSTAZ JASOTAKO ORDAINKETA-GUTUNA<br>CARTA PAGO RECIBIDA POR CORREO | 16/11/2020 |



## Udalerriko kanposatuan prestatutako zerbitzuengatiko tasa

**2020ko ekainaren 1a, astelehena.** Laudioko Udalak kobratuko du kanposantuko zerbitzuen tasa. Ordainketa epea, borondatezko aldian, 2020ko ekainaren 24 egunetik 2020ko abuztuaren 24 egunera arte, biak barne, izango da. Helbideratuta dauden erreziboak 2020ko uztailaren 24 egunean kobratuko dira.

Helbideratu ez dituztenek Kutxabank, Laboral Kutxako edota Nafarroako Caja Rural bulegoetan egin beharko dituzte ordainketak, haien zabaltze ordutegian.

Zerga-bilketarako borondatezko epea amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiazko prozeduraren mende gera daitezke, legalki ezarritako errekarguak, atzeratutako interesak eta kostak barne.

## Tasa por los servicios prestados en el cementerio municipal

**Lunes, 1 de junio de 2020.** El Ayuntamiento de Laudio cobrará la tasa por los servicios del cementerio municipal. La apertura del plazo recaudatorio, en periodo voluntario, ha sido fijada desde el 24 de junio de 2020 hasta el 24 de agosto de 2020, ambos inclusive. El cobro de los recibos domiciliados se efectuará el 24 de julio de 2020.

Quienes no dispongan de las domiciliaciones, deberán hacerlo en las sucursales de Kutxabank, Laboral Kutxa y/o Caja Rural de Navarra, en su horario de apertura.

Vencido el plazo de recaudación en periodo voluntario, las cuotas no satisfechas se exponen al procedimiento de apremio, incluidos los recargos legalmente establecidos, los intereses de demora y las costas que se produzcan.

## Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko udal Zerga

**2020ko ekainaren 1a, astelehena.** Laudioko Udalak kobratuko du Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko udal zerga. Ordainketa epea, borondatezko aldian, 2020ko ekainaren 24 egunetik 2020ko abuztuaren 24 egunera arte, biak barne, izango da. Helbideratuta dauden erreziboak 2020ko uztailaren 24 egunean kobratuko dira.

Helbideratu ez dituztenek Kutxabank, Laboral Kutxako edota Nafarroako Caja Rural bulegoetan ordaindu beharko dituzte, haien ordutegian.
Zerga-bilketarako borondatezko epea amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiazko prozeduraren mende gera daitezke, legalki ezarritako errekarguak, atzeratutako interesak eta kostak barne.

## Impuesto municipal sobre Vehículos de Tracción Mecánica

**Lunes, 1 de junio de 2020.** El Ayuntamiento de Laudio cobrará el impuesto municipal sobre Vehículos de Tracción Mecánica. La apertura del plazo recaudatorio, en periodo voluntario, será desde el 24 de junio de 2020 hasta el 24 de agosto de 2020, ambos inclusive. El cobro de los recibos domiciliados se efectuará el 24 de julio de 2020.

Quienes no dispongan de las domiciliaciones, deberán hacerlo en las sucursales de Kutxabank, Laboral Kutxa y/o Caja Rural de Navarra, en su horario de apertura.
Vencido el plazo de recaudación en periodo voluntario, las cuotas no satisfechas se exponen al procedimiento de apremio, incluidos los recargos legalmente establecidos y, en su caso, los intereses de demora y las costas que se produzcan.



## Objetu Galduen Ordenantza

**2020ko maiatzaren 29a, ostirala.** 2020ko apirilaren 27an, Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman zion Laudioko Objektu Galduak Gordailutu, Zaindu eta Itzultzeko Ordenantzari, udal-arau organiko gisa. Hori dela eta, jendaurrean jarri da testu hori, oro har, **uztailaren 6ra arte**, edonork aurkezteko dituen alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak edota ekarpenak.
Parte hartzeko sartu: **http://www.laudio.eus/eu/herritarrak/parte-hartu.**

## Ordenanza de Objetos Perdidos

**Viernes, 29 de mayo de 2020.** Con fecha 27 de abril de 2020, el Pleno del Ayuntamiento procedió a la aprobación inicial de la Ordenanza de Depósito, Custodia y Devolución de Objetos Perdidos, como norma orgánica municipal. Tras dicha aprobación, se abre a toda la ciudadanía, con plazo hasta el 6 de julio, la posibilidad de enviar cualquier alegación, reclamación, sugerencia o aportación a dicho texto. Para participar entra en: **http://www.laudio.eus/es/ciudadania/participa**

## Diru-laguntzak: kirola eta kultura

COVID19ren ondorioz gelditu behar izan ziren epeak, berriz ireki dira 2020. urteko kultura- eta kirol-arloko diru-laguntzak aurkezteko, ekainaren 30era arte.

## Subvenciones: cultura y deporte

Tras paralización de plazos que supuso la COVID19, se ha abierto de nuevo el periodo para presentar las subvenciones culturales y deportivas para el año 2020, hasta el 30 de junio.

## KZgunea: zuzeneko hitzaldiak

**2020ko maiatzaren 27a, asteazkena.** Maiatzean zuzeneko online hitzaldien zerbitzuak harrera ona izan ondoren, ekainean zehar Youtube KZguneaTIC bidez zuzeneko hitzaldi berri batzuk egingo dira, goizez zein arratsaldez.
Parte hartzeko, interesa duten pertsonek Interneterako konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita (ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea).

Ekaineko hitzaldien plangintza honako hau da:

- **Ekainak 16, 11:00-12:00:** Zure ordenagailua biruz eta bestelako mehatxuetatik babestu/ Euskaraz
- **Ekainak 18, 18:00-19:00:** Streaming plataformak ezagutu / Gaztelaniaz
- **Ekainak 23, 18:00-19:00:** Android sekreturik gabe/ Euskaraz
- **Ekainak 25, 11:00-12:00:** Azken gailu teknologikoak ezagutu/ Gaztelaniaz
- **Ekainak 30, 11:00-12:00:** Zure smartphonea prest izan/ Euskaraz

Informazio gehiago nahi izatekotan, sartu: http://www.kzgunea.eus

## KZgunea: charlas en directo

**Miércoles, 27 de mayo de 2020.** Tras la buena acogida durante el mes de mayo, está previsto realizar nuevas charlas en directo a través del canal de YouTube KZguneaTIC durante el mes de junio en distintos horarios, tanto de mañana como de tarde.
Para asistir, las personas interesadas únicamente necesitan conexión a Internet, puesto que la entrada al evento de YouTube será totalmente libre (no es necesaria la inscripción previa a la misma).

La planificación de las charlas de junio es la siguiente:

- **16 de junio, 11:00-12:00:** Protege tu ordenador de virus y otras amenazas/ Euskera
- **18 de junio, 18:00-19:00:** Conoce las plataformas de streaming/ Castellano
- **23 de junio, 18:00-19:00:** Android sin secretos/ Euskera
- **25 de junio, 11:00-12:00:** Conoce los últimos dispositivos tecnológicos/ Castellano
- **30 de junio, 11:00-12:00:** Mantén tu smartphone a punto/ Euskera

Para más información consultad la página http://www.kzgunea.eus






## Rockein lehiaketak izena emateko epea berriz ireki du ekainaren 24rarte

**2020ko ekainaren 1a, astelehena.** Basauriko Udalak Arrigorriagako, Galdakaoko eta Laudioko Udalen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatzen duen Rockein musika lehiaketak izena emateko epea ireki du, berriz, ekainaren 24rarte. 24 eguneko tarte berri hau jatorrizko izenemate epearen barruan zegoen martxoaren 14tik apirilaren 6rarteko aldia ordezkatzera dator. Aldi hura berezitzat hartu da, alarma-egoeraren ondorioz orduan ezarri ziren murrizketak direla eta. Ekainaren 24ra bitartean jasotzen diren proposamen berriak aurretik izena emandako 156 artistei batuko zaizkie.

Ikus-entzuleen saria hautatzeko online bozketak ekainaren 25ean hasiko dira. Hortik aurrera, lehiaketaren epai mahaiak zortzigarren edizio honetako sei finalistak erabakitzeko prozesua hasiko du.

Finala iragan maiatzaren 22rako programatuta zegoen Basauriko Social Antzokian baina alarma-egoeraren ondorioz eta Covid-19aren hedapena geldiarazteko prebentzio-neurri gisa atzeratu egin zen. Baldintza orokorrek publikoarentzat, artistentzat eta langileentzat erabateko segurtasun-bermea eskaintzen dutenean iragarriko du antolakuntzak data berria.

**Jokoan dauden sariak:**

- Talde irabazlea
- Tokiko talderik onena
- Euskarazko talderik onena
- Publikoaren saria

Lehiaketaren oinarriak eta informazio gehiago nahi izatekotan sartu www.laudio.eus webgunean edo rockein-en sare sozialetan.

## El concurso Rockein reactiva su fase de inscripción hasta el 24 de junio

**Lunes, 1 de junio de 2020.** El concurso musical Rockein, dirigido a solistas y bandas de la CAV y Navarra, y organizado por el Ayuntamiento de Basauri, con la colaboración de los Ayuntamientos de Arrigorriaga, Galdakao y Laudio y la Diputación Foral de Bizkaia, abre de nuevo su fase de inscripción hasta el 24 de junio. Esta nueva ventana de 24 días viene a compensar el tramo del 14 de marzo al 6 de abril del periodo de inscripción original, que se considera excepcional por las restricciones establecidas en aquel momento debido al estado de alarma. Las nuevas propuestas recibidas hasta el 24 de junio se sumarán a los 156 artistas ya validados en la anterior fase del periodo de inscripción.

Las votaciones online para elegir el Premio del público se activarán el 25 de junio. A partir de dicha fecha, asimismo, el jurado del concurso comenzará a deliberar para la elección de los seis finalistas de esta octava edición.

La final, originalmente programada para el pasado 22 de mayo en el Social Antzokia de Basauri y aplazada a consecuencia del estado de alarma y como medida preventiva de cara a detener la propagación del COVID-19, se reprogramará una vez la situación general ofrezca garantías plenas de seguridad para público, artistas y trabajadores y trabajadoras.

**Premios en juego:**

- Grupo ganador
- Mejor banda local
- Mejor banda en euskera
- Premio del público

Para más información y acceder a las bases del concurso en www.laudio.eus y redes sociales de rockein.

## APILL elkarteak Laudioko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa guztiei doako zerbitzuak eskaintzen dizkie

Une honetan Laudioko saltokiak, ostalaritza-enpresak eta zerbitzuak bizi duten egoera dela eta, COVID-19k sortutako osasun-krisiaren ondorioz, Apill udalerriko Merkatari eta Industria Txikien Elkarteak erabaki du indarrak batzeko unea dela aurrera egiteko eta herriak bere enpresa-jarduerari eutsi ahal izateko.
Horrela, APILLek herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresa guztiei doan eskaintzea erabaki du datozen sei hilabeteetan, hau da, maiatzetik urrira, elkartekide izan ala ez.

1983an uholdeekin gertatu zen bezala, APILL elkartetik ohar batean adierazi dute elkarteak haien topagunea izan behar duela, dauzkaten kezkak eta proposamenak partekatzeko, eta egoera latz hau gainditzen lagunduko dieten ekimenak sortzeko. Gaineratu dute ere Laudioko Udalak Ekonomia Sustapen, Merkataritza eta Enplegu Sailaren bitartez lan hau errazteko eskainitako laguntza eskertzen dutela.

**Doako zerbitzuen eskaera**
Apillen zerbitzuak doan jaso nahi dituztenek harremanetarako datuak eman behar dituzte, komunikazio arina eta eraginkorra izateko. Eskaera egiteko, mezu elektroniko bat bidali behar da apill@laudiocomercial.com helbidera, honako informazio honekin:

- Establezimenduaren izena:
- Helbidea:
- Harremanetarako pertsona:
- Telefono mugikorra (adierazi WhatsAppeko merkataritza- eta zerbitzu-taldeetako edo ostalaritza-taldeetako kide izan nahi den, hobeto informatuta egoteko).
- Helbide elektronikoa:

## La asociación APILL ofrece sus servicios de forma gratuita a todas las empresas de comercio, hostelería y servicios de Laudio

Dada la situación que están viviendo en estos momentos los comercios, empresas de hostelería y servicios de Laudio, como consecuencia de la crisis sanitaria generada por el COVID-19, desde la Asociación de Comerciantes y Pequeños Industriales del municipio, APILL, se ha decidido que sea el momento de unir fuerzas para salir adelante y que nuestro pueblo pueda mantener su actividad empresarial.
De este modo, APILL ha decidido ofrecer sus servicios de forma gratuita a todas las empresas de comercio, hostelería y servicios de la localidad durante los próximos seis meses, es decir, de mayo a octubre, sean o no asociadas.

Como ya ocurrió en 1983 con las inundaciones, desde la asociación APILL afirman que la asociación tiene que ser un punto de encuentro, donde se puedan compartir inquietudes y propuestas, donde surgirán las iniciativas que ayudarán a superar esta dura situación. Añaden también su agradecimiento por el apoyo ofrecido desde el Ayuntamiento de Laudio, a través de su Área de Promoción Económica, Comercio y Empleo, a quien tenemos que agradecer su colaboración para facilitar el trabajo.

**Solicitud de servicios gratuitos**
Aquellas personas que estén interesadas en recibir los servicios de APILL, de manera gratuita, tienen que facilitar sus datos de contacto con el objetivo de mantener una comunicación fluida y eficaz. La solicitud se puede formalizar enviando un correo electrónico a la dirección apill@laudiocomercial.com con la siguiente información:

- Nombre del establecimiento:
- Dirección:
- Persona de Contacto:
- Teléfono móvil (indicando si se quiere formar parte de los grupos de comercio y servicios o en el de hostelería de WhatsApp para estar mejor informado)
- Email:



## 2020ko OHZrako hobari-eskaeren aurkezpenak

Gogorarazten da herritarrei Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren (OHZ) 2020rako hobari-eskaerak aurkez daitezkeela, eta epea uztailaren 31n amaituko dela. Ohiko etxebizitza bakoitzeko egingo da, familia-unitatearen diru-sarreren arabera; diru-sarrera horiek 21.000 eurotik beherakoak izan beharko dute.

Udalak eskaerak Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) aurkez ditzatela eskatzen die herritarrei, diru-laguntza eman ahal izateko.

## Presentación de solicitudes de bonificación para el IBI 2020

Se recuerda a la ciudadanía que se pueden presentar las solicitudes de bonificación para el Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI) 2020, y cuyo plazo finaliza el próximo 31 de julio. Se efectuará por vivienda habitual en función de los ingresos de la unidad familiar, que deberán ser inferiores a 21.000 euros

El Ayuntamiento ruega a la ciudadanía que presente las solicitudes en el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento (SAC) para poder proceder a la realización de su concesión.



# GAZTE UDA HERRIAN



**HELBURUAK:**

- Gazteei gustuko duten aisialdi eskaintza egitea.
- Gazteak beraien artean eta kalearekin harremantzen hastea.
- Gazteek dituzten behar emozionalak asetzea.

**OBJETIVOS:**

- Ofrecer a las jóvenes un ocio educativo.
- Que los y las jóvenes empiecen a relacionarse entre sí y con la calle.
- Intentar llenar las necesidades emocionales de las personas jóvenes.

**EGUTEGIA**
6 ASTE:

- Ekainaren 22tik 26ra
- Ekainaren 29tik uztailaren 3ra
- Uztailaren 6tik 10
- Uztailaren 13tik 17ra
- Uztailaren 20tik 24ra
- Uztailaren 27tik 31ra

**CALENDARIO**
6 SEMANAS:

- Del 22 al 26 de junio
- Del 29 de junio al 3 de julio
- Del 6 al 10 de julio
- Del 13 al 17 de julio
- Del 20 al 24 de julio
- Del 27 al 31 de julio

| | EKINTZA<br>ACTIVIDAD | ORDUA<br>HORARIO | TOKIA<br>LUGAR | EKINTZAK<br>ACTIVIDADES |
|---|---|---|---|---|
| ASTELEHENA<br>LUNES | GAZTE GUNEAK<br>ZONAS PARA JÓVENES | Astelehenero 11:00 publikatuko da ibilbidea.<br>Se publicará el recorrido todo los lunes a las 11:00. | Gaztelekuko Instagrametik eta udalaren sare sozialetan.<br>Instagram del gazteleku y redes sociales del ayuntamiento. | Herria egokiago ezagutzeko 5 toki ezberdin. Kalean dauden eta lagunekin jaoteko 6 toki. Beran gure seinalea egongo da.<br>5 lugares diferentes para conocer mejor el municipio. 5 lugares al aire libre para ir con las amistades. Allí encontraran nuestra señal. |
| ASTEARTEA<br>MARTES | HERRI JOLASAK<br>JUEGOS URBANOS | 10:30-13:30 | Lamuza parkean (Pompeya).<br>Parque de Lamuza. (En Pompeya). | - Ginkana<br>- Pista jolasa<br>- Oreka eta bertikaltasuna<br>- Ihes jolasa<br>- Parkour jolasak<br>- Gyncanas<br>- Juego de pistas<br>- Estabilidad y verticalidad<br>- Juego de escape<br>- Juegos de parkour |
| ASTEAZKENA<br>MIÉRCOLES | IGERILEKUAK<br>PISCINAS | 10:30-13:30 | Ellakuriko igerilekuetan.<br>Piscinas municipales de Ellakuri. | Inskripzioak: www.labur.eus/laudiogaztelekua2020<br>Para inscribirse: www.labur.eus/laudiogaztelekua2020 |
| OSTEGUNA<br>JUEVES | TAILERRAK<br>TALLERES | 10:30-13:30 | Laudioko Gaztelekua.<br>Gazteleku de Laudio. | - Slime<br>- Egur traslazioa<br>- Amets harrapakaria<br>- ...<br>- Slime<br>- Traslación a madera<br>- Atrapa sueños<br>- ... |
| OSTIRALA<br>VIERNES | KALE ZINEMA<br>CINE EN LA CALLE | 22:00-23:30 | Lamuza parkean Tenis zelaian.<br>Parque de Lamuza Pista de tenis | Gauean kalean pelikula/laburmetrai batzuk jartzea.<br>Proyectar alguna película/corto en la calle por la noche. |

Izena-emateko tailerretan eta informazio gehiago nahi izatekotan /
Para inscripciones en los talleres y más información: **laudiokogaztelekua@hotmail.com** edo/o **94 403 85 83 - 94 403 48 50**